



1995eko apirilak 28 / 105. zbk.

Astekaria



elgoi



Ikusi eta ikasi
ingeniari-tza alzerrian

Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870

Tel/Fax: 74 42 84



Zur ta Lur

••••• ALTZARIAK •••••

Dekorazio proiektuak
Altzarigintza integralak
Altzari modernoaren
denda berria
Eskualdeko bakarra bere
sektorean



INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

Udaberriko Eskaintza

ORGATILA GALBANIZATUA



4.825 pta



1.445 pta

OLIO MULTIFUNTZIONALA
5 Litroko ONTZIA

Maiazaren 9tik
Ekainaren 10era

BARRURAKO PINTURA PLASTIKOA



175 pta/Kiloa

Itziaroko industrialdea E-13 • ITZIAR • Tel: 19 93 00 / San Frantzisko 24 • ELGOIBAR • Tel. 74 07 62



ASTIGARRAGA garajea

San Frantzisko 53. Tel. 74 01 86

Jaunartzetarako
oparietan aukera
haundia daukagu.
Zatoz eta
ZUK ZEUK IKUSI!



- ✘ Ziklomotore eta motorren salmenta eta konponketa
- ✘ Motoserren salmenta eta konponketa
- ✘ Desbrozadoren salmenta eta konponketa
- ✘ Gurpilen salmenta eta konponketa
- ✘ Bizikleten salmenta eta konponketa

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Agirrezabala, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Belen

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Mikel Cornejo, Izaskun

Elizburu, Jon Etxabe, Jon

Eugi, Koldo Galdona, Jose

Mari Galdos, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Antonio Matias,

Susana Mujika, Maite

Solozabal, Karmelo

Urdangarin, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Elgoibartar harrotasuna

Orain dela hiru bat urte kuadrilako lagunok bazkaria egin genuen Altzolako jatetxe ezagun batean. Bertan, bazkaltzen hasteko ginela, kontu interesgarri bat atera zen berriketarako: elgoibartarra izatea harro egoteko motibo den ala ez. Nire lagunetako batek, bera elgoibartarra izateaz oso harro zegoela azaldu zuen orduan.

Aurten bertan, duela aste batzuk, Maala aldeko taberna batean geundenean, berriz atera zaitzaigun hizketagai berbera. Beste lagun batek bera ere elgoibartarra izateaz harro zegoela esan zuen. Gainera, etxean denen artetik elgoibartarra bera ikusten dutela eta norbaitek familian elgoibartar bezala azaldu behar izatekotan bera izango litzatekeela aitortu zigun.

Egia esan ez da harrizkoa horrelako sentimenduak edukitzea norbera jaio den herriaz. Neurri batean ulertzekoa da hori hala izatea eta adibide bat jartzearen, ez da berdina izango futbol jokalarri batentzat bere herriko taldean edo beste batean jokatzea. Herriko taldearen koloreak beti defendatuko ditu sutsuago beste batekoak baino; hain zuzen ere horregatik, herrikoa delako.


Hala eta guzti ere, nik ez dut uste harro sentitze hau derrigorrez gertatu behar denik. Ez du zertan hala izan behar. Gerta daiteke herrian nahiko gustora bizi izatea; *Haundiaren* partiduak ikustea, zinea ikustera Herriko Antzokira joatea, Beraseta aldean pasiaran ibiltzea, edo, ez dakit, beste mila gauza egitea herrian. Baina horrek denak ez du nahitaez herri horretakoa izateaz harro egotea ekarri beharrik. Neri behintzat ez zait hori gertatzen eta gaiaren inguruko bi berriketaldietan horixe azaldu nuen.

Azken finean ez du hainbesteko garrantzirik. Herri batekoa zara eta kitto. Horrek ez dizu bihotzean horrelako sentimendurik eragiten. Gainera, beste alde batetik, agian egongo da jendea horretarako arrazoirik ez daukanik; Elgoibar ez duena gustuko eta aukera balu, beste herri hobe batean bizitzea nahiko lukeena.

Edo agian egongo da jendea beste gauza batzuek harro dagoena. Ni, esate baterako, euskara jakin eta hitzegiteaz oso harro nago. Euskalduna izateaz, alegia. Hori neretzat gauza handia da. Parekorik ez duena.

Jon Eugi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Gidari batek honako kexa hau ekarri digu BARREnera: Zera esango nieke gidariei: asko kostatzen al zaigu autoak behar diren bezala aparkatzea? Nire ustez, ez. Gainera, disgustu bat baino gehiago ebitatuko genituzke. Zergatik diodan guzti hau? Egunero estazioko aparkalekutik irteteko, batez ere bazkal ondoren, gidari batzuek euren autoak marra horiaren gainean uzten dute, bide estu bat utziz besteok pasatzeko, beraren autoari eta norberarenari, noski, kalte egiteko eran. Mesedez, seinalazioei jaramon egin!



TXALOK

Irakurle batek deitu digu Trinitate jaietako nagusien tanborrada berreskuratu asmoz, lanean ari diren neska-mutil gazteak txalotzeko. Ohitura zaharrak mantendu behar dira eta horrelako ekimenak bultzatu behar direla esan du. Azkenik, herritar guztiak animatu nahi ditu bide hori jarrai dezaten.

ESKUTITZAK

Pentsa birritan botua

Martxoaren 28an intsumisioaren aldeko geldiu-nea egin zen Mekanikan. Ez dakit bozketaren emaitzak zeintzu izan ziren baina nire gelako emaitzak gainontzekoen tankerakoak izan baziren, ikastetxeko gutxi gora beherako emaitza hau izango litzateke: %80 baiezkoa, %12 zuriz, %3 abstentzioa, %5 ezekoa, %2 nuloak.

Manifan, ordea, ez zen ikasle-goaren laurdena ere agertu. Nire iritziz, gazteon gehiengoa intsumisioaren aldekoak gara, baina manifik ez dute hori isladatzen. Gertaera honek zera ondorioztatzera eramaten nau:

- Jai izate hutsagatik idazten du jendeak BAI papertxoan
- Maria Luisari Arraldekoek bere familiaz esango dutena baino gehiago kezkatzen da jendea beraiei buruz esango dutenaz.

Zuk BAI idaztearen arrazoia lehenengoa bada, hurrengoan egin ezazu pira eta kitto. Baina ez ezazu pirarik geldiu-nearekin mozorrotu, ados?

Arrazoia bigarrena bada, XXI. mendearen atarian erdi aroko kontuekin ibiltzea txorakeria dela uste dut.

Utz ezazu lotsa eta beldurra etxeko kutxan gordeta eta zure pentsamoldea kalera ezazu. Intsumisioagatik gazteak espetxera joan ez daitezen lortzeko ez da horrenbeste falta.

Beraz, hurrengoan bozketako orduan pentsa ezazu birritan zure botua.

Bai manifa ala ez.

A.. U.

Munizipalak, herriaren zerbitzura?

Suposatzen da gure munizipalekin harro egon beharko ginatkeela, eta prestatzen duten zerbitzuekin, baina gure munizipalen kasuan ez da hau gertatzen, nire ustez guztiz kontrakoa. Inkonpetenteak dira. Adibide simple bat: Urasandi auzoan badago marra hori bat aparkatzen debekatzen duena, eta ez da errespetatzen. "Stop" eta "ceda" seinaleak ere badaude lurtean margotuta, eta jendeak bertan aparkatzen du. Non daude munizipalak?

Badaukagu parke polit bat denbora pasatzeko baina jardinak zapalduta daude eta ipini zituzten zuhaixka txikiak, erdiak zapalduta daude. Haurrek tximuarena egiten dute zuhaitzetan eta bertako aldapak rallyak egiteko erabiltzen dituzte, ziztu bizian jauziz, eta ia bertako jendea harrapatuz; eta aipatzekoa da gauza hau gertatutakoa dela. Non daude munizipalak?

Azkenengoz, aipatu ikastolako umeak ikastola beheko autoei harriak botatzen ibiltzen direla eta bertako tailerrera ere bai. Non daude munizipalak? Horrelako gauza asko aipa daitezke: eserleku apurtuak, kolupio apurtuak eta abar. Baina gauza hauen aurrean, galdera berdina izango litzateke: non daude munizipalak?

R. S..R

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





San Lorentzoko taberna aurrean ateratako erretratu zahar hau **Begoña Juaristi** auzotarrak ekarri digu. **1953ko apiril**eko igande goiz batean auzotarrak elkartu eta honako argazki hau atera zuten. Bertan agertzen direnen izenak segidan emango ditugu:

Atzeko ilaran tente: **Antonia Gabilondo** (†), **Cresen Zabala** eta **Begoña Juaristi**.

Makurtuta: **Juanito Muguruza** “**Berdun**” (†), **Sabino Juaristi** (†), **Angel Arriola** (†), **Migel Arriola** eta **Jabier Arriola**.

Txakurrek ere bazuten izena. Ezkerrekoari “**Fotx**” deitzen zioten, eta eskumakoari “**Frantsesa**”.



ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

Etxetik urrun ikasten

Gauregun, Unibertsitateko ikasketak izan ohi dira ikasle askorentzat lan mundura sartu aurretik gainditu beharreko azken urratsa. Hauen artean badira bertan ikasi ordez, arrazoi bategatik edo beste bategatik karrera osoa edota azken urteak atzerrian burutzen dituztenak. Elgoibarren bertan baditugu adibide franko. Hauetariko batzuek dira gure gaurko erreportaiko protagonistak. Aste Santuko oporrak aprobetxatuz beraiekin hizketalditxo bat izan dugu eta atzerrian bizi eta ikasi izateak eskaintzen duen esperientzia aberasgarri horren inguruko gorabeherak jaso ditugu.



■ ■ Ezkerretik eskumara Aitzol, Jon



XABIER ZEARSOLO

Adina: 22 urte
Ikasketak/espezialitatea: Ingeniaritza mekanikoa/produkzioa.
Non: Lausanne hirian (Suiza), Ecole Polytechnique Fédérale Lausanne (E.P.F.L)



JON AURREKOETXEA

Adina: 22 urte
Ikasketak/espezialitatea: Ingeniaritza mekanikoa/materialeak.
Non: Ecole Polytechnique Fédérale Lausanne (E.P.F.L), Suiza.

Bost elgoibartar, bostak mutilak, 1972-73an jaiotak denak. Ingeniaritza ikasten dihardute atzerrian. Xabier Zearsolok, Jon Aurrekoetxeak eta Aitzol Arriolak ingeniari-tza teknikoa egin dute Arrasaten. Han ohitura ei da ikaslerik onenak erakundeek emandako beka batzuen bidez atzerriara bidaltzea. Aitzoli Toulou-sera eta Xabierri eta Joni Lausannera joateko aukera eskaini zieten. Gorkaren eta Alexen kasuak ezberdinak dira. Gorka Unibertsitate Laboralean ingeniari-tza ikasten zegoen eta Alex gauza bera egiten Donostian. Ikasketak ezin gaindituz zebiltzan eta Alexen anaiak, Liverpoolen master bat egiten zegoenak, hara joateko esan zien. Gorka joan zen lehena eta dagoeneko bigarren kurtsoa egiten dago. Alex urtebete beranduago joan zen eta ikasketak gainditzeko piskanaka piskanaka. Erreportaian agertzerik izan ez duen Anjel Agi-

rrrezabala elgoibartarra ere Liverpoolen bizi da Alex eta Gorkarekin **Ikasketa sistema**

Ikasketa sistema zeharo ezberdina da hemen eta atzerrian. “Inglateran esaterako, hemen baino erreztasun gehixao ematen ditzue aprobatzeko, haseratik sartzen zera elektronikako materiekin; gai astunak azaletik ematen dira eta praktika mordoa”. “Nire kasuan, -dio Aitzolek-aldia dao, gogorragoa da. Egunero 8 ordu ematen ditzugu eta klasian 20 bakarrik gera, Frantzian trimestre baten Arrasaten urtebetian baino gehixao ikasi dot”. Xabierren eta Jonen esperientzia antzerakoa da, “irakaslegoa oso ona da Suizan, ia danak

dia estranjeruak eta ikerketara dedikatzen dia batez ere”. Frantzian ere irakasleek oso klase ordu gutxi ematen dituzte, gehienak ikertzaileak dira. “Suizako eskolek diru asko dakabe eta medio pilo bat eta horregatik ikertzaile onenak han daude”. “Toulousen adibidez bost unibertsitate daude eta denak dedikatzen dia abiazioaren sektorerera, militarrekin oso lotuak daude”. Klaseak emateko modua ere erabat ezberdina omen da. “Suizan esaterako, irakasliak ariketa batzuk prestatzen ditxu klasian eitzeko eta gai horri buruz doktoraua eitzen dauan pertsona bat irakaslian ordez etortzen da; bitxartian irakasliak ikertzera dedikatzen dia. Ideia bat eitzeko, laboratorixoko jefe batek 6 eta 10 milioi bitxartian kobratzen dau hilabetian, horregatik irakasle batek ezin ditxu klasiak bakarrik eman. Gure eskolan adibidez, Suiza osorako metrua eraikitzeo proiektua ari dia eitzen”.

● ● ● ● ● ● ● ● ● ●
"Munduko irakasle eta ikertzaile onenak Suizan daude"
● ● ● ● ● ● ● ● ● ●



1, Xabier, Alex eta Gorka. Bostak ingeniari-tza ikasten ari dira atzerrian.

Hizkuntza

Kanpotik begira, badirudi atzerrian ikastearen gogorrena hizkuntzaren muga gainditzea dela, batez ere ingeniari-tza bezalako karrera batean. Joan aurretik Gorkak ingelesa hitz egiten zuen, Alexek ere ezagutzen zuen hizkuntza baina beste hiruek ez zuten inoiz frantsesarekin inolako kontakturik izan. Joan baino hamar hilabete lehenago frantseseko intentsi-boa egin behar izan zuten. “Inglateran, eta Frantzian ere antzerako zerbait gertatuko da, klaseko gauzak ulertzeko ez da oso maila altua behar. Ia dena ematen dizute idatzitxa eta gainera hizkuntza oso teknikoa danez behin gauzak ikastiakin ondo moldatzen zera”. “Lehenengo 3 astiak dia txarrenak, -dio Aitzolek-, baina bi hilabetera edo klaseko gauzak azaltzeko eta ulertzeko moduan zaude. Gauza arruntak adieraztia da zailena”. “Haseran -dio Alexek-, zeozer dakizula uste arren, gero ohartzen zara

Etxekoak eta lagunak ikusteko desiatzen egoten dira

ez dakizula tutik ere”.

Bizimodu garestia

Bizimoduari dagokionean, “extra” handirik gabe bizi dira, “monjeak bezala”, Suizan batez ere. “Bizimodua oso garestia da Lausanne-n, janaria eta garraioak batez ere. Liburu batek 14.000 pta balio ditzake eta zineak 2.000 pta. Hilabetea 90.000 pta inguru ateratzen zaigu eta beka %50 bakarrik kubritzen digu”. Klasetik kanpoko bizimodua ere ez da hemen bezalakoa. “Asteburuetan apenas irtetzen gera, oin, hona etortzen geranian... “Frantzia ere ez da oso merkea baina Suizan zein Frantzian ikasketak egiteko erakundeen laguntza handiak daude. “Garestia bertan bizitzea da”. Inglateran Alexek eta Gorkak

matrikula bakarrik dute doan, baina garestiena garraioa eta janaria dira, “hori bai, Inglateran oraindik badago juergatxoren bat egiteko aukera”.

Herrimik sentitzen duten ala ez galdetzean, denek aho batez erantzuten dute baietz. Gabonak, uda eta Aste Santuko oporrak etxera etortzeko aprobetxatzen dute, Aitzolek adibidez, hilero etxera etortzeko aukera duen arren. Etxekoak eta lagunak ikusteko desiatzen egoten direla aitortu digute, eta batez ere, bertoko janaria dastatzeko. Dena den, lehen urteak izaten omen dira gogorrenak, “haseran ilusioz beterik zoaz hara, gero hiru hilabete pasa ondoren, oporrak etorri zain zaude. Baina hilabeteak eta urteak pasa ahala, hangora ohitzen zoaz eta herrimina gainditzen; hala ere, kanpoan egotean bertokoa estimatzen ikasi dugu eta beste bizimodu eta jende erabat ezberdina ezagutze-ko aukera izan dugu”.



AITZOL ARRIOLA

Adina: 22 urte
Ikasketak/espezialitatea: Ingeniaritza mekanikoa/proiektuen konduktzioa
Non: Institute Nationale du Science Appliqué (I.N.S.A), Toulouse (Frantzia).



GORKA ARREGI


Adina: 23 urte
Ikasketak/espezialitatea: Ingeniaritza elektronika/robotika
Non: University of Liverpool (Inglatera).



ALEX ARANZABAL

Adina: 23 urte
Ikasketak/espezialitatea: Ingeniaritza mekanikoa.
Non: University of Liverpool (Inglatera).

ASTE HONETAN



Sonia Dantza Eskola



Elgoibarren
lehenengo aldiz!

- BALLET KLASIKOA
- DANTZA
- KONTENPORANEOA
- MANTENUKO
- GIMNASIA
- ESPRESIO KORPORALA

Errosario kalea, 31
☎ 74 38 39 / 10 18 37

Kosmosean, naturan, gizakian, badago ziklo eta erritmo ezberdinen bidez adierazten den ordena bat; batzuk ezagunak dira: arnasketaren erritmoa, bihotzarena, gaua, eguna eta urteoroak, planeten gorabeherak etab. Eta nola ez, aurrez jakin daitekeen ilargiaren ziklo erregularrak, emakumearen 28 eguneko hilekoaren antzerakoa.

Ilargiaren erritmora itsasoko urak mugitzen dira, animalien eta landareen likido eta fluidoak... eta haiekin poeten izpiritua, astrologoak, maiteminduak, sorginak eta akelarreak, buruhilketak eta festak...

Inork eta ezerk ezin du haren eraginetik ihes egin! Gugan eraginik ez duela esatea, begibistakoa den horren aurrean begiak istea bezala da. Haren eragina igartzen ez dugula esatea, gizakiak sortutako beste erritmo artifizial batzuekin (agian izarrek hala nahi izan dutelako) gure zentzumenak estalita egotea bezala da.

Gaurreguneko gizakia ilargiraino heldu da neurtzeko tresna eta ulermen intelektualari esker. Ilargia zapaldu, neurtu eta konparatu du, hango gasak eta mineralak, lurrazalak eta bolumenak ikertu ditu. Sintoma edo adierazpen fisikoa baino ez du jaso eta "arima" ahaztu

du. Arima harengandik, gure arbasoek inpresio intuitiboak jasotzen zituzten izaera animiko-izpiritualarekin zuten harreman berezi baten bidez, eta adierazpen fisikoak interpretatzen zituzten, gero beraien bizitzetako zikloetan aplikatzeko.

Guri dagokigu gaurregungo ezagutza zientifiko-intelektualak uztartzea eta aintzinako ezagutza intuitiboa berregutzea eta garatzea, arimari eta honen adierazpen fisikoei hedatzeko, beti ere ilargiaren eta gure artean dagoen distantzia haren energia sotila jasotzeko oztopoa ez bada. Era berean, unibertsoko gainontzeko izarrek ilargiaren eragina jasotzen dutela pentsa dezakegu. Zein ote eragin hori?

(Erredakzioan itzulia)



JESUS MUGERZA

Akantzazu edergintza

- I SOLARIUMA
- I Depilazioak hotz eta beroan
- I Gorputz tratamenduak
- I Masaia terapeutikoak eta drenaje linfatikoak
- I Aurpegirako azido glycolicoz tratamenduak
- Dermatitis
- Akne
- Zimurrak
- Mantxa ilunak

San Inazio, 4. ☎ 74 27 25 ELGOIBAR

HERRI-GAİN

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Ilargiaren eraginik igartzen al duzu?



JOSUNE ORMAETXEA
60 urte, etxekoandrea

Normalian ez. Ilberan illia moztu bihar dala eta ortuko gauzentzat ere beti esan da hobia dala. Neri illatargiak baño hego haiziak eitzen dit.



FLORENTINO LEIARISTI
66 urte, jubilatua

Ez dot igartzen baina inportantzia haundixa ematen diote landara asuntuan. Illia ez dot sekula ilberan moztu eta, 67 urte eta gero bastante ondo daukat.



MIKEL LIZARRALDE
22 urte, ikaslea

Ez, ilargi betea ikusteko polita da baina eragin haundirik ez. Jendeak esaten du buruhilketa gehiago egoten omen dela.



GREGORI IRIBE-CAMPOS
52 urte, etxekoandrea

Ez, baserrixan txikitatik hartu izan degu kontuan baina nik ez dot sinisten. Hala ere esaten dabe igartzen dala jendiagan ilargi betia dauanian.



MARISA RODRIGUEZ
52 urte, etxekoandrea

Aita pelukeroa zen eta sinisten zuen ilbeheran. Niri ilargiagatik partoa aurreratu egingo zitzaidala esan zidaten eta ilargia aldatzean partoa hasi zen.



GERARDO OTERO
38 urte, metalurgikoa

Badago baietz esaten duenik baina niri ez dit batere eragiten. Ilea mozterakoan ez diot ilargiari begiratzen, ez naiz superstiziozoa.

Erakusketa aldaketagatik

PROIEKTU -ERREFORMAK

prezio bereziak!!!

Errosario kalea, 15 behea Tel: 74 40 19 - Fax: 74 40 55 • ELGOIBAR •

■ Nekazal arazoei buruzko hitzaldia

Elgoibarko EAJ/PNVk “nekazal arazoak gure herrian” izenburuko hitzaldia antolatu du hil honen 29rako, larunbata. Hizlari modura egongo dira Iñaki Txueka nekazal alduna, Xalbador Gorostola Gipuzkoako Abelazkuntzako arduraduna, J. M. Aldanondo Mendietako arduraduna, J. I. Elkoro-Iribe alkatea, J.A. Iturbe Gipuzkoako Agrariako presidentea, Jon Arruti EMBako presidentea, Agustín Irusta baserri gaietarako zinegotzia, Guillermo Garate PNVko alkategaia eta Iñaki Oñederra baserri gaietarako zinegotzigaia. Jarraian lunch-a eskainiko da. Saioa arratsaldeko 4,30etan izango da Kultur Etxean.

■ PPK alkategaia aurkeztuko du Elgoibarren

Donostiako egoitza zentraletik jakin ahal izan dugunez, Partido Popular alderdiak maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategaia aurkeztuko du Elgoibarren. Berau Juan Carlos Avián Moreno da eta egoitza ez digute nongoa den esan. Zerrenda osatzen dute Miguel Solans eta Nicolas Sanchez PPko kideek. Egoiza zentralerako iturriek adierazi dutenez, gutxienez zinegotzi bat lortzeko asmoa dute Elgoibarren. Hauteskunde kanpainari begira PPK Elgoibarren ekintzak antolatzeko asmoa dauka.

■ Kirol libururen aurkezpena

“Kirola Euskaraz” programaren baitan euskaraz idatzitako liburuak sortzeko ematen diren bekaren fruitu da maiatzaren 4ean Donostian egingo den bi libururen aurkezpena. Euskaraz idazten diren lehen kirol liburuak dira. Bat itzulpena da, “Futbol entrenatzailea” izenburukoa, eta bestea, Ina Oiarzabal eta Aitor Zinkunegi debarrek idatzitako “Kirol entrenamenduaren oinarriak”. Aurkezpena maiatzaren 4ean izango da goizeko 11,30etan Kutxaren Arrasate kaleko egoitzan.

Datorren urteko Kilometroak Elgoibarren ospatuko dira



SARASUA

1996an Kilometroak Elgoibarren ospatuko dela jakin izan du BARREnek. Ikastolako iturrien arabera, 96ko udazkenean burutuko da, ohi den bezala. Ikastolak iaz egin zuen eskakizuna eta beste bost herritako ikastolek ere eskaera egin arren, Elgoibarkoari egokitu diote Kilometroen antolakuntza. Elgoibarren batutako dirua, 14 eta 16 urte bitarteko batxilergoak ezartzeko erabiliko da, hau da, beharrezkoa den azpiegitura erai-

kitzeko. Kilometroekin batera, datorren urtean Elgoibarko herria sortu zenetik 650 urte betetzen direnez, Udalarekin elkarlanean kultur egitarau zabala antolatzeko asmoa du Ikastolak eta Euskal Herri mailan, Elgoibar hiriburu kulturala bihurtu. Dagoeneko Kilometroen ekitaldien antolamendurako lantaldeak osatzen hasiak daude eta aurtengo Kilometroak antolatzeko ari den Zurriola ikastolarekin ere harremanetan daude.



Inazio Bereziartua Musikeskolaren X. urteurreneko egitarauaren barruan Donostiako Udal Txistulari Taldeak hiru saio ezberdin eman zituen asteartean OHOkoko hiru ikastetxeetako haurrentzat. Ostegunean, berriz, Iñigo Aizpiolea soinu-jole gazteak emandako kontzertuan Alemaniako Klimental hiriko Nazioarteko Jaialdian joko duen programaren zati bat entzuteko parada izan zuten Herriko Antzokira hurbildu zirenek. Aurrera begira kontzertu guztiei buruzko liburuska bat argitaratzeko asmoa ei dute.

Udala demokratizatu egin behar da datorren legealdian HBren ustez



Udal hauteskundeetan HBko ordezkari izango direnek, Udala demokratizatzearen aldeko apustua egiten dute. HBren ustez Udalak ez du herritarren nahiak eta beharrak asetzeko duen funtzioa betetzen eta "hori horrela da plenoetan herritarrek ez dutelako parte hartzerik eta erabaki guztiak batzordeetan hartzen direlako, eta, zehazkiago, gobernu batzordean". Gainontzeko batzordeetan, euskara batzordean, hirigintza edota kultura batzordean esaterako, "PNVk hartzen ditu erabaki guztiak". Demokrazia ezaren errua PNVri leporatzen dio HBk, "16 urte hauetako gestioak ekarri gaitu egoera honetara, eta erantzule nagusiak datorren lelegealdirako PNVko

zerrendaburuan dauden Garate eta Orue dira". Ildo honetatik, edozein eskakizun bideratzeko politikoengana jo beharrean batzordeetara zuzentzeko eskatu nahi diete herritarrei. Demokratizazioaren inguruko herri programa defendatuko du HBk, "gure proiektuen artean, etxebizitza sozialen gestio eraginkorra, trebeatzailearen figura, gazteen arazoan elkarrizketa bultzatzea, zergen bueltan agente guztien arteko hitzarmena lortzea leudeke, besteak beste. HBk aurkeztutako zerrendako lehen postuetan daudenak eta argazkian agertzen direnak hauexek dira: Pello Mendizabal, Juan Carlos Marcos, Jabi Agirre, Asier Zengotita, Izaskun Arozena eta Iñaki Odriozola.

Maiatzaren 6an Prebentzio eguna ospatuko du Errotatxok

"Bizirik Bizi" izenpean hilaren 24ean hasi zen Prebentzio Astearen egun fuertea, maiatzaren 6an ospatuko du Errotatxo elkarteak. Herriko 37 kolektibo Plaza Handian bilduko dira bakoitzak urtean zehar burutzen duena erakutsiko duelarik. Eguerdiko 1ean manifestazioa egingo dute. Gaueko 11etan Kokoteraino taldea-

ren kontzertuak amaiera emango dio jai egunari. Bukatzeaz dagoen aste honetan berriz, Pepe Rei kazetariaren hitzaldia eta mahainguru bat burutu dira eta gaur, hilak 28, Algara taldearen "Pasa la coca abuelo" saioa ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian gaueko 22,30etatik aurrera.

■ KOKOEren erakusketa

Kokoe komiki elkarteak kideen 30 lan baino gehiago maiatzaren 14ra arte izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan. Elkarrekin kaleratzen duen fanzinerako espreski egindako komikiak, ilustrazioak eta bestelako lanak, koloretan zein zuri-beltzean eta teknika ezberdinekin egindakoak dira. Honako hauen lanak daude erakusgai: Iban Barrenetxea, Mikel Cornejo, Alberto Garcia, Iñaki Raigoso, Antxon Alvarez, Joseba Otaegi, Alvaro Espiga, Asier Esnaola eta Jesus Tadeo.

■ Zuazan egonaldiak

Eibarko, Ermuko eta Elgoibarko Udaletako Ongizate Sailek antolatuta, maiatzaren 13a eta 14a Arabako Zuaza irlan igarotzeko aukera izango dute 14 eta 16 urte bitarteko gazteek. Egonaldiaren zenbatekoa 2000 ptakoa da eta izena maiatzaren 2tik 5era bitartean eman ahal izango da Ongizate Sailean (74 10 08). Gehienez 10 pertsonantzat lekua egongo da.

■ Antimiliek mozio bat aurkeztu zuten plenoan

Talde Antimilitaristak 11 puntuko mozioa aurkeztu zuen osteguneko plenoan. Iazko mozioa onartu zenetik 14 intsumiso epaitu dituzte eta "sententziak ezartzerakoan irizpide ezberdinak darabiltzate epaileek, lau elgoibartar 2 urte 4 hilabete eta egun bateko zigorrarekin daude, urtebeteko zigorrarekin bi eta gainontzekoak, urtebete azpikoekin". Mozioaren punturik garrantzitsuenak: Udala kode penal berriaren aurka azaltzea, gartzelan dauden intsumisoei lanpostu publikoak gordetzea, Ertzantzak intsumisoak ez atxilotzea eta Elgoibar "intsumisioaren aldeko herria" izendatzea, besteak beste. Era berean Euskal Herriko mugimendu antimilitaristek burutzen diharduten kanpainaren barruan beste mozio bat aurkeztu zuten ejerzitoaren abolizioa eta kode penalean aurreikusten diren inhabilitazioak ez onartzeko eskatuz.

■ Mekanikan hitzaldia

Datorren asteartean, maiatzak 2, arratsaldeko 7etatik aurrera eta Lanbide Eskolako aretoan, datorren ikasturtean BBB nahiz REM egin nahi duten ikasleen gurasoentzako aurkezpen hitzaldia izango da. BBBko eta REMeko informazioaz gain, batxilergo berrien eta erdi mailako zein goi mailako prestakuntza zikloen berri ere emango da. Hortaz, adin horretako seme-alabak dituzten gurasoei dei egiten zaie. Maiatzaren 4ean toki eta ordu berean, 2. mailako ikasleen gurasoak parte hartu ahal izango dute Institutuko ikasketa buruak eta Orientazio Sailak, datorren ikasturterako egin beharreko aukeraketaz emango duten hitzaldian.

■ Ate irekien eguna IMHn

Erreminta Makinaren Institutuak ate irekien eguna ospatuko du datorren hilaren 6an, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara herritarrek ikastetxe honetan burutzen den ihardueren berri izateko aukera izan dezaten. Hortaz, herritar guztiak egun honetako jardunaldira gonbidatuak daude.

■ PNVren hitzaldia

Udal hauteskundeetarako PNVko alkategai modura aurkeztuko den Guillermo Garatek eta Gipuzkoako Aldun Nagusirako hautagaia den Roman Sodupe "Gipuzkoa 95-96" izenburupean bildutako proposamen eta gogoetei buruz hitz egingo dute Kultur Etxean maiatzaren 3an. Antolatzaileek aurkezpen bilera honetara joatera animatu nahi dituzte herritar guztiak. Saioa arratsaldeko 8etan hasiko da.

■ Odol ateraldia


Odol Emaileen talde bat Elgoibarren izango da datorren ostiralean, maiatzak 5, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean aurrez deitutako pertsonen odola ateratzeko. Emaila izan nahi duten guztiak ere egoitzatik pasa daitezke.

450 haur baino gehaigok korrituko dute II. Haur Krosean



Igande eguerdian, San Bartolome Ikastolak antolatutako Haur Krose burutuko da. Aurten 450 bat hurrek parte hartuko duela adierazi dute antolatzaileek, zortzi kategoriaz ezberdinetan banatuta. Guztira 13 lasterketa dira, lau ibilbide ezberdin prestatu direlarik. Guztiak Plaza Handian hasi eta amaituko dira. Lehen lau lasterketetan 1987an eta 1988an jaiotako neska-mutilak arituko dira eta Plazatik Errosario kalean zehar Nafarroa Enparantzara abiatuz, bertan bira emango dute Plazan amaitze-

ko. Segidan 85. eta 86. urteetan jaiotako txanda izango da eta hauek Loriton bira emango dute. Ondorengo lasterketa luzexegoa izango da, 83 eta 84 urteetan jaiotakoek Maalaraino joan beharko dute etahandik Plaza Handiraino. Azkenik, ordubatean, 82an eta 81ean jaiotako neska-mutilen lasterketa hasiko da eta hauek Errosario, San Bartolome, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro eta Pedro Migel Urruzuno kaleak zeharkatuko dituzte Plaza Handian jarritako helmugara iritsi aurretik.



Olaizaga Kiroldegiak antolatutako pala txapelketako finalak jokatu ziren apirilaren erdi aldera eta hona hemen bikote irabazlearen eta bigarren sailkatuen izenak: Elkoro eta Riko txapeldunak ezkerreko argazkian, eta Azpiazu eta Ronkina txapeldunordeak eskumako argazkian. Sari modura esku artean duten garaikurra jaso zuten eta aipatu lehen aldiz antolatu den txapelketa honek arrakasta nabarmena izan duela, guztira 12 bikotek hartu baitu parte.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

Udal hauteskundeak gerturaten ari direla eta, kanpainen sartu aurretik, herritarren nahiak jaso nahi izan ditugu inkesta labur honetan.

Ander Zulaika 12 urte, ikaslea



Polikiroldegi bat nahi nuke eta futbito txapelketa antolatzea, lehen egoten zen bezela. Neri mendira jutia gustazen jata eta nahi nuke herri guztiarentzako mendi irteerak antolatuko dituen talde bat egotia, aste bukaeratan kanpora joateko, Pirineotara eta horrela. Pistina estali bat ere ez litzake geizki egongo. Jaixak gehixao luzatzia ere eskatuko nioke.

Haritz Astorkia

19 urte, iturgina

Gutxienez gazteentzako lokal bat, zaharrentzako ere egiten ari dira eta. Gero, langabezian dauan gazte jendiantzako herrixan lana sortzia. Baina batez ere, gaztientzako ekintza gehixao organizatzia eskatuko nioke.



M. Angeles Belda

26 urte, dendaria

Gaztien artian lana eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, ezkontzen dan jende gaztia herrixan geratu dadin kanpora bizitzera jua biharrian.



Koro Mardaras

44 urte, etxeoandrea

Guztia, %100 eman dezala herriगतिक, alderdi politikoa kontuan hartu gabe. Eta batez ere gazte jendiakin gogoratzeko eskatuko nioke, Mendaron ez dago ezer beraiantzat eta edozertarako kanpora joan behar dute.



Gorka Zabala

25 urte, mekanikoa

Jenda Mendarotik kanpora bizitzera ez juteko babes ofizialeko etxebizitzak egitia. Baita kirol zerbitzu guztiak batera dauden konpleju bat ere, polikiroldegi bat pistinarekin, belar artifizialeko futbol zelai bat... Eta gaztientzat lokal bat.



Edurne Olazabal

13 urte, ikaslea

Polikiroldegi bat pistinarekin, tenis zelai bat eta kirola egiteko toki egoki bat, ikastola beteta egoten dalako. Jaiak luzeagoak izatea eta ekintza gehiago egotea jaietan.

KiliBARRENen antzerako aldizkari luzeago bat ere ondo egongo litzateke, orri gehiagorekin eta Mendaron bertan argitaratua.



Mendaroko XVI. Kros Herrikoia

Datorren igandean, hilak 30, goizeko 10,30etan hasita Mendaroko XVI. Kros Herrikoia burutuko da Udaletxeak antolatua. Lehenbizi alebinen txanda izango da, 1400 metro korrituko dituztelarik. Ondoren, 10,45etan, infantilak arituko dira, hauen kasuan 2.650 metroko ibilbidea izanez. Gazteak aterako dira ondoren, 11,15etan, 5.050 metro korrituz eta, azkenik, 12etan, helduen mailari emango zaio hasera, hauen ibilbideak 9.850 metroko luzera izanik. Izena ematea eta irteera Udaletxean izango dira eta epea lasterketa hasi baino 30 minutu lehenagora arte luzatuko da.

HBk hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu ditu

Maiatzaren 28ko Udal hauteskundeetan atarian, Mendaroko Herri Batasunak bere hautagaiak aurkeztu ditu. Hauek dira: zerrendaburua Arantza Egaña, bigarrena Ramon Urain, hirugarrena Aitzol Ezenarro eta ondoren Jose Idoeta, Valentin Jauregi, Dorleta Lazarobaster, Agustin Urbieto, Iñaki Aragon eta Alberto Eizagirre. Datorren legealdirako Mendaroko HB, udal ireki eta partehartzaile bat sortzen saiatuko da, "orain arte baztertuak egon diren gazteria eta kultura, euskara barne, bultzatuz eta gazteak eta Udalaren arteko gatazkak ahaztu barik".

"Lagun betikoak" jubilatuen egoitzaren inaugurazioa

Jubilatuen egoitzaren obrek oso martxo onean dira. Ondorioz, maiatzaren bigarren astean zehar izango da inaugurazioa, bide batez Mendaroko Industrialdea eta Ikastola inauguratuko direlarik.

73ko kintoen bazkaria

Maiatzaren 1ean 73ko kintoen bazkaria izango da Aitzpe Elkartearen eguerdiko 2etan. Antolatzaileek ahalik eta jende gehiena elkartu nahi dute. Animo bada!

Mendaroko dantzariak Oreretara eta Eibarrera



Mendaroko Gazteak dantza taldeak zenbait jaialditan parte hartzeko gonbidapenak jaso ditu. Maiatzaren 1ean Oreretan izango dira eta maiatzaren 21ean Eibarren. Amurrio eta Bergaran, zoritxarrez, ez dute parte hartzerik izango, egunak ez baitzaizkie ondo etortzen.

Mendaroko IV. Pilota Txapelketa



Mendaroko IV. Pilota Txapelketa antolatu berri da. Partiduak Goñati pilotalekuan jokatuko dira. Palaz, maiatzaren 6tik ekainaren 24ra arte izango dira larunbatero, arratsaldeko 15,30etatik aurrera eta 16 pilotarik hartuko dute parte. Eskuz, berriz, 5 pilotari izango dira maiatzaren 21a eta ekainaren 18ra bitartean. Eskuzko partiduak igandetan jokatuko dira, goizeko 11,30etan hasita.

PROTAGONISTAK



Hilabete honetako argazkia Jose Antonio Zubiaurrek lagatakoa da. Berak esan digunez 1956. urtean ateratakoa omen da eta bertan Mendaroko bi futbol talde agertzen zaizkigu: Arno eta Arrastaka. Txapelketan parte hartzen zuten guztiek egin zuten futbol zelaia, Errotazulo izenez ezagutua. Txapelketan Altzolako, Azpilgoetako, Garagartzako eta San Antolineko jokalariek parte hartu zuten. Hona hemen argaz-

kian agertzen diren futbolari gazteak: Goian ezkerretik hasita: **Roberto Areitio, Jose Luis Zabala, Juan Agustin Arreitunandia, Luis Mari Unzueta, Juan Mari Bizkarrondo, Juan Jose Arrillaga** eta **Juan Jose Goikoetxea** (manager-a). Behean, ezkerretik hasita: **Luis Mari Arrillaga, Jose Uria, Marcos Bizkarrondo, Juan Jose Zabala, Francisco Antonio Saint Gerons, Jose Mari Ondarza** eta **Jose Antonio Egiguren**.

3

Juan Migel Arriola Arotza



- Ohituraz ala gustoz lan honetan? ■ Haseran beste ezer ez nuelako, orain, berriz, gustoz.
- Zenbat urte lan honetan? ■ Orain dela 8 edo 10 urte hasi nintzen.
- Zein egur duzu gustukoen? ■ Orokorrean denak gustatzen zaizkit.
- Zein urtarotan izaten duzu lan gehien? ■ Udaberri eta udara inguruan, baina batez ere, herriko jaien aurretik.
- Gehien eskatzen den altzari mota? ■ Gehienbat atek eskatzen dizkigute baita lurrak ere.
- Egurra ondo zaintzeko modurik? ■ Likidoekin tratau behar da pipiak jo ez dezan eta, bestalde, berriz margotzeko lijazia ere komenigarria da.
- Lan gogorra al da? ■ Beste lan guztiak bezalakoa.
- Nola ospatzen duzu langileen eguna? ■ Ez dugu ezer berezirik egiten, jai hartzen dugu, denek bezala.
- Afiziorik? ■ Bai, bizikleta eta futbola asko gustatzen zaizkit.
- Mendaro ala Donostia? ■ Mendaro, dudarik gabe.
- Zure etxeko altzariak zeuk eginak ala erosiak? ■ Batzuk erosiak eta beste batzuk neuk egingo nituzke.

Joseba Perez de Arriba:

"Anbulategian bideo gela bat jarriko nuke osasun gaiekin"

Gasteizko arabar hau orain dela urte batzuk etorri zen Mendarora. Gure herria eta bertoko biztanleak atsegin dituen gizon hau Mendaroko sendagilea eta osasun zaintzailea dugu. Zertxobait gehiago ezagutu dezazuen eta medikuntzari buruz hitzegiteko ekarri dugu zuen aurrera.



4

- Noiztik zaude Mendaron lanean?
- 1988ko abenduan izendatu ninduten Mendaroko sendagile.

- **Nolatan Mendaro?**

- Beno, nik Gizpuzkoa aldean eskatu nuen plaza bat eta garai haietan Mendaron zegoen bat. Lehenago Araban jardun nuen 5 urtez, herri txiki batean. Egia esan, nahiago ditut herri txikiak.

- **Zein gaisotasun dira arruntenak Mendaron?**

- Nere ustez, beste lekuetan bezalaxe. Gaisotasunak adinaren arabera bana daitezke. Adibidez, 45 urteko andre batek menopausiagatik hezurretakoa eduki dezake. Halere, aurtun arruntena gripea izan da, txikienetik handienara, zaharrak ezik, hauei txertoa jarri baitzitzaien.

- **Mendaroko jendea aprensiboa dela uste al duzu?**

- Ez, ez dut uste. Normalean behintzat ez, nahiz eta beti dagoen norbait, beste lekuetan bezalaxe.

- **Nola erabakitzen duzu zein botika den aproposena?**

- Esperientziatz ezagutzen dituzu botika batzuk, onenak zeintzu diren. Hala ere, botikaz aparte zainketak ditugu, zainketa higieniko eta dietetikoa oso garrantzitsuak dira.

- **Osasun Ministeritzak agintzen al du zein botika eman?**

- Ez, askatasun guztia ematen dizute errezetatzeko orduan baina Osakidetzak gastuak kontrolatzeko aholkuak ematen ditu.

- **Jendea mediku pribatuetara joaten al da?**

- Ez, gero eta gutxiago gainera. Bailara hau nahiko banandua zegoen baina ospitala ipini zutenetik, espezialista asko daukagu eta errekurtsu ugari.

- **Anbulategiko instalakuntzak zer moduz daude?**

- Berriak nahiko ondo daude, lehen-goak uholdeak harrapatu zituen eta. Gainera, orain leku egokiagoan dago. Falta dena osasun hezkuntza da, adibidez, zain egoteko bideo gela bat osasunari buruzko gaiak emanaz.

- **Zein adineko jendea etortzen da gehien?**

- Gehienak 3. adinekoak dira baina beste guztiak ere nahikoa.

- **Jende asko al dago udaberriko alergiekin?**

- Bai, jende asko etortzen da. Sendatzeko, azkenaldian modan dau-

den kortikoideak erabiltzen dira.

- **Zergatik ikasi zenuen euskaraz hitzegiten?**

- Gustatzen zaidalako eta bertoko jendearekin harreman hobea edukitzeko.

- **Medikuek erreziklatu beharra al dute?**

- Bai, uste dut oso garrantzitsua dela. Ni neu momentu honetan ikastaro bat egiten ari naiz medikuntza orokorrari buruz. Bi hilabete egin ditut eta beste bi t'erdi gertzen zaizkit. Beste aste bat ospitalean egin dut, bai eta Ondarruko anbulategian ere. Herrietako medikuen lana edonola aldatzen ari dela esango nuke eta, aldi berean, prebentzioa igotzen, hala nola, tabakoa, diabetesa, kolesterola eta abar. Jendea kontzientzia hartzen ari da.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Clara Arrillaga

"AB Interiores"eko



- "AB Interiores"?
- ▶ Arrillaga-Beristain, nire abizenak eta senarrarenak.
- Zer da diseinua? ▶ Sortzea.
- Eta dekorazioa?
- ▶ Medioarekin moldatzerako orduan sor daitezkeen arazoak soluzionatzea dela esango nuke.
- Zu zer zara, diseinatzailea ala dekoratzailea? ▶ Biak, dekoratzailea diseinatzailea da; sortu, dekoratu, denetarik egiten dugu.
- Zein da zure ametssetako etxea? ▶ Gustura sentiarazten zaituena da. Hori pertsona bakoitzaren pertsonalitatearen arabera dago.
- Egurra eta harria, ala moketa eta eskaiola? ▶ Egurra eta harria.
- Erosten al duzu dekorazioko aldizkaririk?
- ▶ Bai, pila bat, kolekzioa egiten dut.
- Arlo honetan, zerk markatzen du moda?
- ▶ Publikoak, bakoitzaren ideien arabera izaten da.
- Zer da errazagoa, etxe huts bat dekoratzea ala norbaiten ideiak ordenatzea?
- ▶ Etxe huts bat dekoratzea. Nahi duzuna egin dezakezu.
- Zure etxeko txokorik gustukoena? ▶ Sala.
- Elegantea ala komodoa?
- ▶ Elegantea eta komodoa konpatibleak dira.
- Elgoibarren zer dekoratuko zenuke?
- ▶ Edozer gauza, lokalak, kafetegiak, Udaletxea... dena.
- San Bartolome kalean duplex bat ala mendian itsasora begira dagoen etxetxo bat?
- ▶ Mendira itsasora begira dagoen etxea dudarik gabe.
- Asteburuetan zer gustatzen zaizu egitea?
- ▶ Ez daukat denbora libre gehiegirik, bi ure txiki dauzkat eta beraiekin egoten naiz ahal dudana denbora guztia.
- Etxe bat dekoratzen bukatzen al da noizbait?
- ▶ Bukatu-bukatu ez, beti dago zerbait aldatu edo erreformatzeko.
- Zein da normalean etxean jartzen duzun diska?
- ▶ Mike Oldfield-ena.
- Gustatzen al zaizu autopista sarreran jarri duten eskultura?
- ▶ Ez dut ikusi, ez zait bertatik pasatzea tokatu.

BELEN ARRIZABALAGA

PREBENTZIO ASTEIA

DOINUA:

Iparragirre abila dela

Aste honetan guk izan dugu
Prebentzio astia
nik nahi dudana da zuei denoi
horren berri ematia
batetik debatia
Pepe Rei-ren hitzaldia
horiek Kultur Etxean
ostiralean antzezlan on bat
"Algara"rekin gauean

Hilaren 6a egun handia
izango dugu kalean
kolektiboek euren postuak
Udaletxean aurrean
eta gero gauean,
Maalako parkean
kontzertua izango da
herritar danok Errotatxo
harro sentitutzen gara.



JON GARATE



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN



Juan Ignacio Ausin Santamaria

IUko alkategaia

- **Zeri buruz idatziko zenuke liburu bat?**
Ingurugiroari buruz.
- **Estresatua zaudenean zer egiten duzu?**
Siesta egin, asko gustatzen zait.
- **Lo erraza ala zaila daukazu?**
Erraz hartzen dut lo.
- **Gogora etortzen zaizun zure bizitzako momentu bat?**
Nire lehen semearen jaiotza.
- **Politika antierotikoa dela diote.**
Ez dakit zer esan, politikan sartu berria naiz.
- **Zer da lehenago, eskubidea ala betebeharra?**
Eskubidea.
- **Besteengan onartzen ez duzuna?**
Hipokresia.
- **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein izkutatuko?** Mintxeta erakutsiko nioke eta larunbat arratsaldetan San Frantzisko kalea botakaz betea dagoenean izkutatuko.
- **Norekin pasako zenituzke gustura berriketan pare bat ordu?** Historiadore batekin.
- **Balorerik garrantzitsuen?**
Zintzotasuna, sintzeritatea.
- **Emakumea bazina, zein lanbide izan nahi zenuke?**
Irakaslea.
- **Lehen muxua, non eta noiz?**
Durangon izan zen, jaietan baina ez dut gogoratzen noiz.
- **Txikitan alkate izan nahi al zenuen?**
Ez, txikia izaten jarraitu nahi nuen.
- **Emaguzu arrazoi bat zuri emateko botua.**
Ondo edo gaizki egin, egiten dudana guztia garbia, gardena izango da.

ADINA: 39 urte

JAIOTERRIA: Meferreyes (Burgos)

IKASKETAK: OHO

LANBIDEA: Langilea

EGOERA ZIBILA: Ezkondua

ZALETASUN BAT: Mendia

LIBURU BAT: Historiari buruzko bat

IDAZLE BAT: Gabriel García Marquez

PELIKULA BAT: El Padrino

MUSIKA MOTA BAT: Joaquín Sabina

KOLORE BAT: Morea

KIROL BAT: Footing-a

JANARI BAT: Arraina

JANTZI BAT: Kamiseta bat

USAIN BAT: Loreena

GRAFOLOGIA

- Juan gizon ona da. Bere idazkera maliziarik gabeko pertsona batena da, izkutuko ezer ez duen pertsona batena. Gauzak bere izenez deitzea atsegin du. Txaplatak (emplastos) eta trikimainak ez ditu gustuko. Interes handia jartzen du gauzetan eta kausetan eta inori ez dio alde zurretik pentsaturiko minik egingo.
- Juan entusiasta da jaiotzetik. Bere eskuzabaltasuna oparotasunera eta zarrastelkeriara (despilfarro) irits daiteke, nahiz eta, logikoki, beti etxerantz botako duen. Bere gainerik dagoen jendeari errespetu handia dio eta errespetu hori mantendu nahian antsietate piskat sortzen zaio bai eta enkarguak amaitu nahian ere. Laztasunak ekiditen saiatzen da eta kon-



trasteak leuntzen.

- Juan oso analitikoak da baina ez sintetikoak. Analisia bere ezaugarrietariko bat bezala dauka eta askotan, analizatu nahi horrekin

galdu egiten da.

- Ideia asko ditu nahiz eta beti ez dituen lortzen lotzea, gorpuztea eta gauzatzea. Bere pentsamendua teorikoa da batez ere, eta horren ondorioa da azterketa eta analisia. Halere, detaileetan gertatzen da ikuspuntu orokor bat izan beharrean.
- Inspiratua dagoenean nekaezina da eta errendimendu ahalmen mugagabea dauka. Bere arazoa, beti perseberantea ez izatean datza.

Iñaki Mendieta (Grafologia)

Maiatzaren 26ra arte geratzen diren lau asteetan alderdi bakoitzeko alkategaiari eskainiko diogu orrialde hau.

Maria Antonia Egizabal

■ Lucas Longa arkitekto mendarotarra, berari zegokion elizako obra bukatu aurretik hil zen 1703an. Alargunak, Maria Antonia Egizabalek, familia ugaria zuen eta arazo ekonomikoak zituen 9000 erreale zor baitzizkion herriak. Era berean, berak elizako obretan lanean ari ziren zazpi ofizialei dirua zor zien. Ofizial hauek Maria Antoniaren etxean bizi omen ziren eta ez zuten handik joaterik nahi, alargunak zor ziena ordaindu arte.

■ Une horretan Udaltzabak Maria Antoniaren ardurapean utzi zituen elizako obrak, senarrak bukatu ez zuen amaitu zezan. Hargintzari zegokion guztia egin behar zuen, koroa, sakristia eta kanpandorra ezik. Estalkia eta teilatuen planoen diseinua eta hauen obra enkantean ateratzea ere bere ardura zen.

■ Senarra hil zen arte Maria Antoniak garai hartako erdi mailako emakume bati zegokion bizimodua eraman zuen: emazte ona eta seme alaba ugari izatea oinarritzko betebeharra zen XVIII. mendean. Senarra hil zenean, aldiz, egoera ekoomikoak eta familia buru izateak, garai hartako emakume batentzat ohizkoa ez zen negozio munduan sartzera bultzatu zuten. Zeregin honetan kemen handia erakutsi zuen bere senarra izan zenak sinatu zuen tratua ongi bete zuelarik.

■ Maria Antoniaren agindupean teilatuen armadura eraikitzeko trazak egin ziren, Lazaro Lizardi izanik egilea. Lizardi, maisu arkitekto asteasuarra oso ezaguna zen Loiolako santutegian eta Debako parrokiako sakristiak egiten parte hartu baitzuen.

■ Lizardiren trazaketa jarraituz Frantzisko Aristondoa azkoitiarrak

eraiki zituen teilatuen armadurak. Harotz azkoitiarrak 1710 urterako bukatu zuen lana, Maria Antoniak bere konpromezua betez.

■ Armaduraren lanak berebiziko garrantzia dauka alde batetik teilatua ongi bukatua egon dadin eta bestetik, teilatua eusten duen armadurak ongi estudiatua egon behar duelako, gure klima hezea ez baita nolanhikoa.

■ Lizardik, Astiazaran ikertzaileak dioenez, estalkiaren armadura erakusten duenez, bere garaiko diseinu-formen ezagupen zehatza du eta aurreko beste bi arkitektoen proiektuekin alderatuz gurutzaduraren kupulan aldakuntzarik izan zen, laranja erdia nabarmen altxatu baitzuen eraikinari liraintasuna emanaz.

PELLO ARRIETA



Bernardo Zubiaurre

(1913-1952)



- Elgoibarren jaio zen San Migel auzoko Ballegoiti baserrian 1913. urteko apirilaren 27an.
- Munizipal nagusia izan zen 1939tik hil arte.
- Zaletasunen artean aipagarrienak ehiza eta mendia ziren. Urtero 10 egun hartzen zituen urria aldera ehizara joan ahal izateko, uso pasera.
- Udaletxean bertan bizi izan zen, gaur egun Epaitegia dagoen tokian zegoen etxebizitzan. Parean, berriz, orain artxiboa kokatzen den tokian, Ramón Galdos eta bere familia bizi ziren, brigadako jefea bera, barrenderoa, suhiltzailea...
- Bernardoren lehen emaztea hil eta haren ahizparekin ezkondu zen bigarren eztaitan.
- Garai hartako udaltzainek txapel gorria eramaten zuten.
- San Migel auzotik aurrera dagoen Urkaregin ikasi zuen, Mikeleteetan.
- 1952. urteko apirilaren 26an hil zen, bere urteguna baino egun bat lehenago.



*Familiakoren bat edo lagun bat hiltzen bazaizu
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

MOTZAK

Diapositiba emanaldia eta Gorbeara trabesia

Morkaikok Gobeara trabesia antolatu du maiatzaren 7rako, beraz, joan nahi duenak izena eman beharko du ohizko lekuan. Maiatzaren 5ean, berriz, Andeetan ateratako diapositiba saioa eskainiko du Iñaki Etxabe mendizaleak. Saioa gaueko 10etan izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Boleibol ikastaroa

"Kirola Euskaraz" programak bultzatzen duen udaberriko ikastaroen barruan boleiboleko entrenatzaile titulu ofiziala lortzeko ikastaroa burutuko da maiatzaren 6an, 7an, 13an eta 14ean Eibarko Ipurua Kiroldegian. Gipuzkoako Federazioko irakasle batek emango ditu klaseak eta ikastaroaren zebatekoa 6.000 ptakoa da Deba bailarakoentzat. Izena emateko lehen bait lehen deitu Kirol Zerbitzuko 74 44 15ra, plazak mugatuak baitira.

Suspenditu egin da automodelismo erakusketa

Larunbat honetan Mintxetako zelaian burutu behar zen automodelismo erakustaldia bertan behera lagatzea erabaki dute antolatzaileek eguraldi txarra dela eta. Egun hauetan egin duen eurien ondorioz erabat lokastua eta potzuz betea geratu da erakustaldia egitea pentsatuta zegoen tokia, Mintxetako futbol zelaiko atzeko aldea, alegia. Horregatik eguraldi hobea egiten duenerako utziko dute erakustaldia, ekainerako agian.



Eugenio Caro:

"Aurten ere liga irabaz dezakegu"

■ **Nazioarteko Txapelketan jokalaria onena aukeratu zaituzte.** - Bai, urtero Errealak antolatzen dau eta internazionala da. Madrilen kontra galdu eta Lyon-en eta Athletic-en aurka berdindu egin gendun.

■ **Jokalaria onena aukeratzeko, zer hartzen dute kontuan?** - Dana izango dela pentsatzen dot. Jokua, konportamendua... dena.

■ **Noiz hasi zinen futbolean?** - Pilarrean eta gero C.D.-an. Infantiletan Errealera joan nintzen eta aurtengoarekin bost urte egin ditzut.

■ **Nolakoak izan dira urte hauek Errealean?** - Lau urtetan liga irabazi degu eta aurten ere irabazteko aukerak ditzugu. Lekuak eta jendea ezagutzeko aukera ere euki dot, eta futbolian formazio diferentia jaso dot hemenguakin konparatzen.

■ **Elgoibartar ugari Errealean.** - Bai, Joseba Etxeberria Sansen, jubenetan Mikel Elkoro-Iribe, Josu Ibarra eta ni, eta infantiletan aurten joan dia Gurrutxaga eta Etxabe. Sei gaude baina haseran 4 ginan: Joseba, Mikel, ni eta Josu Agirregomez-korta. Honek laga egin zaban kadetietan. Nagusietan ere elgoibartar bat zauan, Gonzalez. Gero Ibarra jun zan.

■ **Futbolari bezala, zerk egingo lizuke ilusiorik gehien?** - Errealeko ekipo haundian jokatzia.



Selekzioan jokatzia ere inportantia da baina oso zaila ere bai.

■ **Sansen jokatu duzu dagoeneko.** - Hiru partidutara jun naiz eta bitan jokatu det. Urtarrilean debutatu nuen Sansen eta aste honetan Anoetan jokatu det lehen aldiz, azken 10 minutuetan.

■ **Zein postutan jokatzeko duzu?** - Aurrean, hortaz, ahal den gol gehixen sartu, buruz errematau, erregatiak egin,... azkarra izan. Oraindik asko ikasi bihar det, Amas entrentzailearen esanei beti kaso egin eta ahal degun hobetuen egiten saiatzen gera.

■ **Nola ikusten duzu etorkizuna?** - Orain jubenetan bukatzen dogu eta ez dakit ziur beste urtebete jubenetan egongo geran ala Sansera pasatuko geran.

■ **Zer kenduko eta zer ipiniko zenuke futboletik?** - Kendu, jendea jokalariekin haserraten denean, eta

ipini, jendeak jokalariekin pazientzia gehiago izatea, gazteekin batez ere.

■ **Egia al da futbolarietako gehiago ligatzen duzuela?** - Ez dakit, zeozer igual bai, baina gero errealdian ez da hainbeste.

- Adina: 18
- Kinielarik? Astero
- Eta asmatu? Behin, 13ko bat lagunekin.
- Errealari zer ikur jartzen diozu? Irabazi normalean
- Jokalari bat: Romario

Zatoz antxitxika **BARREN**eko kamiseta eskuratzerara!

Bizkor ibili. Gutxi geratzen zaiakigu.

TXIKIAK
400 pta.

HANDIAK
600 pta.



Euskadiko Eskalada Txapelketa Elgoibarren izango da ekainaren 17an eta 18an

Euskadiko Mendizaleen Federazioak Euskadiko Txapelketa toki bakar batean egiteko erabakia hartu du eta ez lau toki eta data ezberdinetan, orain arte bezala. Gipuzkoan bi froga izaten ziren, bat Bergaran eta Elgoibarren bestea, eta Bilbon eta Gasteizen besteak. Txapelketari oihartzun gehiago eman nahian, toki eta data bakar batean izango da aurten, tokia Elgoibar eta data, ekainak 17 eta 18.



Paco Iriondo Federazioiko lehendakariak eta Patxi Arozena, batzorde teknikoko kideak eta Espainiako eta Euskadiko txapeldun izan denak, Txapelketaren etorkizunerako funtsezkoa den erabakia hartu dute aste honetan bertan egindako bileran. Euskadiko Txapelketaren garrantzia indartu egingo da, data eta toki bakar batean burutzean. Gai-nontzeko herriekin alderatuz, Elgoibarko antolakuntza gaitetik dagoen iritzikoak direnez, Elgoibarren izatea erabaki dute aurtengo txapelketa. Morkaiko Mendizale Elkarteak, Udalak, Federazioak eta batzorde teknikoak jarri dute dagoeneko data: ekainak 17 eta 18. Bi egun hauetan zehar burutuko lirarteke Kiroldegiko rokodromoan, txapelketari dagozkion froga ezberdinak. Oraindik zehaztu gabe dago zer nolako frogak izango diren baina ziurra da abiadura froga egongo dela eta Patxi Arozenak Euskadiko Txapelketan parte hartuko duela.

Maila handia

Dudarik ez dago aurtengo txapelketak maila handia izango duena. Estatuko hamar eskalataile onenen artetik, zazpi euskaldunak dira. Hauxe gain, Estatuko bi onenak ere, bat Patxi Arozena donostiarra da, aurrez aurre arituko dira abiadura frogan. Bi egunetan froga ugari pilatuko denez, aurten ez da dantza eskaladarik antolatuko, baina ikuskizun modura abiadura frogak ordezkaturiko du harek utzitako hutsunea. Izan ere, iaz antolatu zen lehen aldiz abiadura froga eta ikusleagoak ezin hobeto hartu zuen.

Espainiako Txapelketa

Aste honetan ziren biltzekoak Espainiako Federazioak Bartzelonako ordezkariekin Espainiako Txapelketa noiz eta nork antolatuko duen erabaki-tzeko. Antolatu zaileek Euskadiko Txapelketaren data, ekainak 17 eta 18, errespetatu beharko dute eta prest dauden hirien artean Gasteiz eta Bartzelona daude. Estatuan inork Espainiako Txapelketa antolatzerik nahiko ez balu elgoibartarrak prest leudeke ardura hori bere gain hartzeko. Gal ezin litekeen aukera litzateke dudarik gabe.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 29

10,15: Elgoibar - Sporting Herrera (Infantilak)
17,00: Elgoibar - Miren Bihotza (2. errejonala)

Igandea 30

12,00: S. D. Eibar - Real Union (Kadeteak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 29

16,00: Pagoaga Elgoibar - Urnietako (Kadete Neskak)
17,30: Elgoibar - Ereintza (Kadete Mutilak)

Astelehena 1

12,00: Pagoaga Elgoibar - Bidebieta (Kadete Neskak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 3 - Getxo 2
Elgoibar 0 - Union Txiki 1 (Jubenilak)
Intxaurren 1 - Neskak 1

ESKUBALOIA

Arrate Amaña 8 - Pagoaga Elgoibar 18 (Kadete Neskak)
Mundaiz 28 - Elgoibar 26 (Kadete Mutilak)
Elgoibar 29 - Bidebieta 25 (Jubenil Mutilak)

MOTZAK

Gipuzkoako Bolo Txapelketa San Migelen

Larunbat honetan, hilak 29, Gipuzkoako Bolo Txapelketari dagokion tiraldia jokatu da San Migeleko bolatokian arratsaldeko 5etatik aurrera. Dagoeneko lau tiraldi jokatu dira, Azolaberrin, Elgetan, Unzillan eta Txurrukan. Banakako sailkapeneko buru eta irabazle izateko aukera handiekin San Migel taldeko Anjel Ibarluzea dago, eta honen atzetik, laugarren postuan Jose Irusta. Taldeka, berriz, San Migeldarrak bigarren daude. Datorren larunbatean San Pedron azken tiraldia izango da eta hangoaren ostean ezagutuko da txapelkunaren izena.

Eskalada ikastaroa

Datorren hilaren 2tik aurrera, asteartea, eskalada ikastaroari ekingo dio berriro Morkaiko Mendizale Elkarateak. Informazio gehiago eskuratzeko Morkaikoren bulegora edo Kiroldegira zuzendu.

Plater tiroketa San Pedron

Datorren hilaren 6an, 13an eta 20an *La Union* ehiza eta arrantza elkarateak plater tiroketa txapelketa antolatu du. Herritarrentzat soilik izango da, bete beharreko baldintza lizentzia izatea delarik. Izena emateko, egunean bertan San Pedroko tiro zelaian elkartekideek 1.500 pta eta gainontzekoek 2.000 pta ordaindu beharko dituzte. Izen-ematearen %70 kategorien arabera emango diren sarietarako erabiliko da.

Bi lasterketa izango dituzte txirrindulariek astebukaeran

Lagun Taldeko jubenilek, Elgoibarko txirrindularien mailarik nagusiena osatzen duten txirrindulariek, bi topaketa garrantzitsu izango dituzte astebukaera honetan. Lehena larunbat honetan, hilak 29, Oñatin burutuko den Arantzazura igoera izango da eta bigarrena, maiatzaren lehenean Ordizian izango den Gipuzkoako Txapelketa.

Larunbatean korrituko da Elgoibarko V. Duathloia

Urgazi Triathloi Taldeak antolatzen duen Elgoibarko Duathloia ez da azken urteotan bezala, igande goizean burutuko, larunbat honetan, hilak 29, arratsaldeko 15,30etan baizik. Izan ere, igandean, hilak 30, Ikastolak II. Haur Krosa antolatu du eta hori izan da larunbatera aurreratzeko arrazoia.



■ ■ Iaz 200 partaide inguru abiatu ziren Plaza Handiko irteeratik.

Larunbat arratsaldeetan Elgoibarren izaten den kale-giro nahasiarekin bat egingo dute V. Duathloi honetako korrikalariek. Lasterketa arratsaldeko 15,30etan hasiko da eta kale artetik igaroko denez antolakuntzak ballak jarriko ditu taberna atarrietan. Dena den, honako hau ez da larunbat batean egiten den lehen aldia eta egin izan zenean ez zen inolako arazorik gertatu larunbata izatearren.

Kategoriak eta ibilbidea

Sei kategoria ezberdin egongo dira: jubenilak, juniorrak, seniorrak eta beteranoen hiru kategoria. Plaza Handitik irtengo dira korrikalariak eta lehenik 7 km egingo dituzte saltaka, gero 33 km bizikletan eta azkenik berriz saltaka beste 3 km. Lasterketa burutzeko gehienez 3 ordu terdiko denbora ezarri du antolakuntzak eta txirrindularitzan behar beharrezkoa izango da kasko edo buruko gogorra erabiltzea.

Izena emateko epea ez da itxiko lasterketa egunera arte. Eginkizun horretarako Kiroldegira zuzendu.

Partehartzaileak

Iaz ia 200 korrikalarik hartu zuten parte Elgoibarko Duathloian. Lasterketa egunera arte ez da jakiterik izango aurten hainbeste jendek izena emango duen ala ez baina astean zehar 70 bat ziren dagoeneko izena emanda zutenak. Tartean daude Jon Astigarraga behin baino gehiagotan Estatuko selekzioko kide izan dena eta Elgoibarren 92an irabazle izan zena, Mario Lavin puntako duathloilaria, eta emakumezkoetan Nerea Martinez nafarra. Espainiako txapelkunak ez dira Elgoibarraren egongo egun berean Europako Txapelketa burutzen delako Hungarian. Elgoibartarren partaidetza iazkoa baino murriztagoa izango da kopuruz, askok antolakuntzan aritu beharko dutelako.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren saio bat Elgoibarren izango da

Datorren hilaren 5ean, ostirala, Gipuzkoako Bertsolarien Elkarteak antolatutako Bertsolari Txapelketaren lehen faseari dagokion hirugarren saioa burutuko da Herriko Antzokian gaueko 22,30etatik aurrera. Urretxun hasitako lehen fase honetan 44 bertsolarik hartuko du parte, tartean Bertso Eskolako irakasle den German Meabebasterretxea bertsolari elgoibartarrak.



LEIRE ARZUAGA

Razan ere, German izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa honen bueltan, taula gainean bertsotan ikusiko dugun elgoibartar bakarra. Dena den, ez du Elgoibar saioan parte hartuko, Mutrikukoan baizik, maiatzaren 6an.

Gipuzkoako txapelketaren udaberriko fase honen ostean, bigarren fase bat izango da udazkenean, urriaren 20ean hasi eta finala Donostian abenduaren 17an izango duena. Lehen kanporaketa honetan 1995ean 18 urte bete eta 93ko Euskal Herriko Txapelketan egon ez ziren guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Dena den, bigarren fasean 30 bertsolarik baino ezingo dute parte hartu. Aurrez, ordea, 22 bertsolari daude izendatuta udazkeneko faserako, hortaz, lehen faseko 44 horietatik 8k bakarrik izango dute parte hartzeko aukera, hau da, saio bakoitzeke sei irabazleak eta puntuaziorik altuena lortzen duten bi bertsolarik. Aurrez izendatutako 22 horietatik baten batek huts egingo balu, puntuazioaren arabera betetzen joango lirake baja horiek.

Lehen kanporaketari dagokion hirugarren saioa izango da Elgoibar eta azkena Oñatin izango da maiatzaren 13an. Antolakuntzak erabateko zorroztasunez jokatu du

■ ■ Argazkiko bertsolariak dira Elgoibarko saioan izango direnak.

noriaz, puntuantatea eskatzen zaio ikuslegoari. Parte hartuko duten bertsolariak: Jon Aiestaran, Antton

Aitor Menaiuze, Xabier Inazabal, Andoni Otamendi eta Aitor Sarriegi.

GERMAN MEABEBASTERRETXEA: "Txapelketei duten garrantzia eman behar zaie"



- Elgoibartar bakarra zara.

- Bai hala da.

- Zer esperantza daukazu?

- Haserako helburua parte hartzea da eta ahalik eta lan txukunena egitea, hortik aurrera datorrena datorrela. 44 bertsolaritik 8k dute aurrera egiteko aukera. Ez da erreza izango.

- Zeintzu dira era honetako txapelketa baten zailtasunak?

- Maila honetako

txapelketetan nere lehenengo esperientzia da.

eta besteei entzundako erreferentziak dauzkat bakarrik. Bertsolari gehienak sufritzen dute txapelketan.

- Txapelketa beharrezkoa al da?

- Betiko eztabaida da hori. Beharrezkoa ez dut uste denik. Bertso hutsak baditu beste esparru batzuk. Txapelketei ez zaie dutena baino garrantzi gehiago

eman behar. Baina sistema hoberik asmatzen ez den bitartean...

- Nor izan daiteke Gipuzkoako Txapelketa?

- Denon buruetan daude izen batzuk. Baina bertso kopuru mugatu batean posibilitateak dituztenetatik edonork irabaz dezake.

ORIENTAZIOA

ikasleari bideak irekiz

Orain 8 urte inguru sortu zen Elgoibarko Institutuan orientazio departamentua. Guraso Elkartearen ekimena izan zen, haiek departamentu honen beharra ikusi eta M. Jose Garmendia sikologoa kontratatu zuten orientabidea emate-

ko. Orain, LOGSE erreforma dela eta, delegazioak orientazio departamentu hauen beharra eta garrantzia ikusi du eta bere funtzioa azpimarratu nahi izan du. Hori dela eta enfoke berri bat eman zaio, departamentua zabaldu dela-

rik eta funtzioak bai eta hedapena ere ugariagotu egin direlarik. Honela, gaur egun, Mari Jose Garmendia sikologoak, Iñasio Garmendia koordinadoreak eta Amaia Etxebarria orientatzaileak osatzen dute aipatu departamentua.


ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA ETA FUNTZIOAK:

TUTORETZA PLANGINTZA

Plangintza honen helburua ikaslea laguntzea da. Gela bakoitzak bere tutorea dauka eta astean behin, orientazio departamentua tutore guztiekin elkartzen da. Laguntzeko beharrezkoa da ikasleak ezagutzea. Horretarako, batetik, aurreko ikasturteetako notak daude eta bestetik testak egiten zaizkie (ikaslearen motibazioa, ikasteko plangintza, ikaslea nola sentitzen den gelan, ikasleari zein arlo profesional gustatzen zaion...). Ikasleen gurasoek ere beste test batzuk bete behar izaten dituzte, beraien seme-alabei buruzkoak. Honela ikaslea arlo pertsonalean eta akademikoan ezagutu ahal da. Orientazio departamentuak tutoreekin izaten dituen bileretan, arazo pertsonalez, disziplinarioez eta akademikoez hitzegin eta orientazio departamentutik koordinatu egiten da konponbidea bilatu asmoz, gero tutoreak gelan edo pertsonalki komentatuko dituelarik.

ORIENTAZIOA

Kurtso klabeetan zehazten da batez ere orientazioa, hau da, 2. BBB eta REM, UBI, BTI2n eta BAG2n. Testak egiten dira gustu eta interes profesionalak aztertzeko. Gero, gurasoekin izaten dira bilerak eta azkenik elkarrizketa pertsonala egiten zaie ikasleei,



M. J. Garmendia
Sikologoa



Iñasio Garmendia
Koordinadorea



Amaia Etxebarria
Orientatzailea

gurasoei aukera ematen zaielarik elkarrizketan egoteko. Orientatzaileak ez du ikaslea bultzatzen, laguntza bat eskaintzen dio eta komeni zaionaren arabera aholkuak ematen dizkio, garbiago izan dezan zein bide hartu behar duen. Gustuaz gain praktikotasunari ere begiratu behar zaio, hau da, ikasle batek ingeniarietza egin nahi badu ere, noten arabera posible zaion ikusi behar da, unibertsitatean sartzerik izango duen eta lan munduan zer nolako aukerak dauden. Unibertsitateaz gain, moduloak eta ziklo formatiboak ere badaudela jakinarazten zaie. Era berean, kantitatearen gainetik kalitatea azpimarratzen dute. Ikasleak gai izan behar dira institututik atera eta edozein lan, edozein egoeraren aurrean aurrera egiteko. Orientazioak ideia hori markatu nahi du, kantitatea baino kalitatea dela garrantzitsuen, ikasgaia bera baino, ikasgai hori lantzeko, aztertzeko, zertarako balio dion jakiteko gaitasuna izatea.

ATENTZIO INDIBIDUALA

Terapia hitza erabili daiteke hirugarren puntu honetan. Arazo konkreturen bat duen ikasleari laguntza pertsonala eskaintzen zaio. Ahal den neurrian ikastetxean bertan ematen zaio laguntza baina arazoa handiagoa izango balitz, ikastetxetik kanpo bilatzen da irtenbidea.

Etxebizitzak

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukaldea eta igogailua.
☎ 74 37 41

PISU BAT erosiko nuke.
☎ 74 08 20
Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.
☎ 74 15 22

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.
☎ 74 32 98

Bestelakoak

Asteazkenean PERIKITO URDIN BATEK ihes egin zuen Santa Ana kalean, erreka aldera. Norbaitek aurkitu badu, mesedez dei dezala.
☎ 74 27 06

KATU BAT galdu nuen Ermuaranbide kalean orain dela bi aste. Siamesa da, marroiska, emea eta tratamenduan dago gaisorik dagoelako. Topatu duenak deitu dezala.
☎ 74 35 48 Puri

35-45 urte bitarteko JENDEA EZAGUTU NAHI NUKE, gizon nahiz emakumezkoak, mendizaleak, astebukaeretan mendi irteerak egiteko. Deba Behea ingurukoak.
☎ 76 31 35

CARITASek sukalderako eta salarako ARMARIO BAT behar du. Baita sukalderako MAHAI BAT eta ume txikiak mahaian esertzeko AULKI BAT ere.
☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

PERTSONA BAT behar dugu pisu bat osatzeko Donostian (Amaran).
☎ 61 93 14
Deitu gauzez

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian
☎ 74 13 67

Lana

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK ere zainduko nituzke.
☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.
☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.
☎ 74 39 89 Mari Karmen

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTZEKO prest dago. Goizez.
☎ 74 09 02 Kristina

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 43 16 Mari Karmen
Goizez

Salerosketak

OPEL CORSA SWING 1.2 BAT saltzen dut. 5 atekoa. Oso egoera onean. SS-AB.
☎ 75 60 32

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU eta INPRESORA BAT erosiko nituzke.
☎ 74 07 30 Unai

TAPIFLEX KOLTXOIA ETA BURUKOAK saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.
☎ 74 03 69 Kristina

LORITO BAT saltzen dut kaiola haundi batekin batera.
☎ 74 26 32 Txomin

LANBRETTEA 150 (Bi-X) eta MOBILETTE BAT saltzen ditut.
☎ 74 26 32 Txomin

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.
☎ 74 00 67 Martin
Jatorduetan


Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT. Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta
☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

BIKOTE LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA oso bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.
☎ 74 33 19
Itik 3etara / 7,30etatik 10etara

Agurrak

Apirilaren 26an 10 urte bete zituen Aritz Arrieta Odriari zorioren familia guztiaren partez.

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....112131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

28 OSTIRALA

19,00 KOMIKI ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean
Maiatzaren 14a arte

19,30 HBko HAUTAGAIEN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

22,00 GAREren BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 ANTZERKIA

"Pasa la coca abuelo" ALGARA
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Errotatxo

29 LARUNBATA

15,30 ELGOIBARKO V. DUATHLOIA

✓ Plaza Handian

16,30 HITZALDI-EZTABAIDA

Gaia: "Nekazarien arazoak gure herrian"
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: EAJ/PNV

17,00 GIPUZKOAKO BOLO TXAPELKETA

✓ San Migelen

19,30-22,15 ZINEA

"Pulp Fiction"

30 IGANDEA

12,15 HAUR KROSA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Ikastola

12,30 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Un regalo para papá"

19,30-22,15 ZINEA

"Pulp Fiction"

1 ASTELEHENA

16,30 ZINEA

"Un regalo para papá"

19,30-22,15 ZINEA

"Pulp Fiction"

2 ASTEARTEA

19,00 HITZALDI INFORMATIBOA

Ertainetako gurasoentzat
Gaia: Hezkuntz-eskaintza
✓ Mekanikan
Antolatzailea: Herriko Institutua

22,15 ZINEA

"Un regalo para papá"

3 ASTEAZKENA

20,00 PNVren HITZALDI AURKEZPENA

Hizlariak: Roman Sudupe Aldun
Nagusirako hautagaia eta
Guillermo Garate alkategaia
✓ Kultur Etxean

4 OSTEGUNA

19,00 HITZALDIA

2. mailako ikasleen gurasoentzat
Gaia: Ikasketa aukeraketa
✓ Mekanikan

5 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol emaleen elkartean

22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Andeak
Egilea: Iñaki Etxabe
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

22,15 GIPUZKOAKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA

Lehen kanporaketa saioa
✓ Herriko Antzokian

ZINEA

Pulp Fiction

Quentin Tarantino gidoilari ospetsu izatetik zuzendaritzara igaro eta, hona hemen bere bigarren lana. Canneseko zinemaldiko sariaz gain, gidoi onenari emandako Oscarra jaso du pelikula honek. Hiru istorio nahasten dira behin eta berriro elkarren artean; narrazio joku berezia proposatzen du. Zinema beltza, indarkeria garratza eta barregarria aldi berean, behe mailako gangster giroa, umore zakarra eta kontatzeko modu ezin hobea. Hamarkada ezberdinetako musikaz (Tarantinok berak aukeratua) jantzitako pelikula da.

Un regalo para papá

Frank eta bere lagunek emakumeari eta sexuari buruz jakinmina asetzeko, "V" izeneko emakume batengana jotzen dute. Etxeratzean bizikletak ostu dizkietela ohartzean, "V" laguntzeko prest agertuko da eta berak eramango ditu etxera. Franken aita, alargun geratu da eta Frankek aitarentzako emakume ideala topatu nahiko du. "V" ama eta emazte ideiala bilakatuko da.

txandak

FARMAZIAK:

| EGUNA | EGUNEZ | GAUEZ |
|----------------|------------|------------|
| 29, larunbata: | Ormazabal | Ormazabal |
| 30, igandea: | Ormazabal | Ormazabal |
| 1, astelehena: | Etxeberria | Etxeberria |
| 2, asteartea: | Etxeberria | Etxeberria |
| 3, asteazkena: | Etxeberria | Anduaga |
| 4, osteguna: | Etxeberria | Anduaga |
| 5, ostirala: | Etxeberria | Etxeberria |

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42 / 75 60 27

OKINDEGIA:

30, igandea: IDARRAGA eta
EIZAGIRRE
1, astelehena: FOTERO



ESKAINZA FORMATIBOA

95-96 IKASTURTEA

HELBURUA

- Teknologia berriek sortzen dituzten beharrei egokitutako hezkuntz kalitate bat eskaintzea.

HEZIKETA ZIKLOAK

III. MAILAKO MODULUAK

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- DELINEAZIO INDUSTRIALA
- AUTOMATIZATURIKO SISTEMEN ETA MAKINEN MANTENUA



EKIPAMENDUA

- PRODUKZIO MAKINERIA: 3CNC Torno, 3 CNC Fresadora, 2 Mekanizazio Zentru, 2 CNC Rektifikadora.
- CNC-CAM MODULU DIDAKTIKOAK: 4 Torno eta 4 Fresadora.
- CAD-CAM-CAE MODULUA: 15 Work station 2D/3D eta Software integratua.
- ERREMINTA MAKINA KONBENTZIONALA: Tornuak, Fresadorak, Rektifikadorak eta Mandrinadorak, Zerrak, Zulatzeko makinak.
- METROLOGIA LABORATEGIA: Kontrol tridimensional makina motorduna, Laser Interferometroa.
- SAIKUNTZA LABORATEGIA: Fotomikroskopio metalografikoa, Durometroak, Labea.
- AUTOMATISMO LABORATEGIA: Hidraulika, Neumatika, Elektronika, Elektrizitatea, Automata Programagarriak, Serboeragintzak.



AURREINSKRIPZIOA ETA INFORMAZIOA

MAIATZAREN 4tik 18ra EGIN BEHARREKOA

- Bizilekuaren ziurtagiria
- Familia liburuaren fotokopia
- Errenta aitopenenaren fotokopia (aukerakoa)

San Roke Auzoa, 1 - ELGOIBAR
Tfno. (943) 74 41 32 • Faxe: (943) 74 41 53
Ordutegia: 9,00etatik 13,00etara - 14,30etatik 17,30etara

ELGOIBARKO INSTITUTUA



LANBIDE ESKOLA ☎ 74 44 80

BATXILERGO INSTITUTUA ☎ 74 02 67

**PROFESIONALTASUNEAN OINARRITUZ KALITATEA
ESKAITZEKO KONPROMEZUA DUEN ESKOLA**

**ESKOLAKO
ESKAITZA**

MAILAZ MAILAKO IBILBIDEA

UNIBERTSITATEA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Merkataritza eta administraritza
Makina-Erreminta

2 urte

LOGSE BATXILLERGOAK

Natur eta Osasun Zientziak

Humanitateak eta
Gizarte Zientziak

Teknologia

2 urte

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Administraritza
Erreminta Makina

1 1/2 - 2 urte

1. - 2. BBB (BUP)

2 urte

1. - 2. IEE (REM)

2 urte

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA: MAIATZAREN 4tik 18 bitartean